

TEKNOLOGIA BERRIAK ETA ADIMEN ARTIFIZIALA ARKITEKTURA TEKNIKOAN

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua:** Arkitektura Teknikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza 1. Donostia (Gipuzkoa)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Jarduera praktikoa honetan, Batxilergoko ikasleek teknologia berriak eta adimen artifizialak Arkitektura Teknikoa nola eraldatzen duen ezagutuko dute. 3D laser eskaner bidezko puntu laino batetik abiatuta, Revit eta SketchUp bidezko espazioen modelizazioaren eta adimen artifizialaren (ChatGPT eta Sora) erabilaren bidez, prozesu osoa esperimendatu dute: espazio baten digitalizaziotik hasi eta errenderrak eta animazio errealistak sortzeraino. Sormenarekin eta berrikuntzarekin uztartzen diren esperientzia murgiltzaile bat izango da, diseinuan eta eraikuntzan erabiltzen diren tresna profesionalekin.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- 3D laser eskannerraren erabilera arkitekturaren errealtate zehatza jasotzeko.
- 3D modeloak eraikitze programen erabilera: Revit eta SketchUp.
- ChatGPT adimen artifizialaren erabilera errenderren sorrerarako deskripzioak garatzeko.
- Adimen artifizialaren erabilera animazio errealistak sortzeko.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

3D eskannerraren simulazio praktikoa

- 3D laser eskannerraren erakustaldia campus-eko espazio batean.
- Sortutako puntu-hodeiaren bistaratze berehalakoa.
- Aplikazioen azalpena: birgaitzean, obren kontrolean eta ondarearen digitalizazioan.

Software profesionalarekin modelizazioa

- Puntu-hodeiaren txertaketa Reviten.
- Oinarrizko eraikuntza-elementuen modelizazio erraza.
- SketchUp-era jauzia.

Adimen Artifiziala diseinu arkitektonikoan aplikatua

ChatGPT eta ideien sorrera

- ChatGPTren erabilera espazioen deskribapen testualak sortzeko (adib.: *“gela moderno bat argi naturalarekin, material jasangarriekin eta estilo minimalistan”*).
- Deskribapen horiek render baterako briefing gisa nola erabil daitezkeen erakustea.

Sora eta render/animazioen sorrera

- Sora-ren aurkezpena (bideo eta 3D/errealitatezko irudien IA sortzailea).
- Ikasleek sortutako deskribapenen abiapuntutik, barne-espazioen render edo bideo laburrak sortzea.
- SketchUp-en egindako modeloa eta lArekin sortutako renderra alderatzea.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

| Data | Hizkuntza | Txanda | Ordua | Plazak |
|------------|------------|-------------|-------------|------------|
| 2026-01-28 | Euskara | Arratsaldez | 15:30-17:30 | 32 (16+16) |
| 2026-01-28 | Gaztelania | Arratsaldez | 15:30-17:30 | 16 |